



Ttikiena haur-eskolarako euskara dakiten haur-hezitzaile lanpostua aldi baterako kontratatzeko izangaiei zerrenda egiteko deialdia

Deialdiaren xedea eta arau orokorrak:

Deialdi honen xedea da Basaburuko Udalaren titulartasuneko Ttikiena haur-eskolan euskara dakiten haur-hezitzaile lanpostua betetzeko aldi baterako kontratazioarako izangaiei zerrenda eratzea. Zerrenda horrek aurreko deialdietan lanpostu berberetarako onartutako zerrenda guztiak ordezkatuko ditu.

Deialdi hau gauzatuko da Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua onartzen duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren 42.2 artikuluan, aldi baterako langileak hautatzeari buruzkoan, eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan xedatutakoaren arabera. Kontratazio-zerrenda honen kudeaketari dagokionez, aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauak onartzen dituen abenduaren 31ko 814/2010 Foru Aginduan edo, aipatutakoak indargabetuz gero, hura ordeztuko duten arauetan xedatutakoa beteko da.

Lanpostuaren ezaugarriak

Haur-hezitzailearen lanpostuak honako eginkizun hauek ditu lehentasunezkoztat: haurren zuzeneko arreta, zaintza eta hezkuntza betetzea, eta, horretarako, planifikazio-, jarraipen-, koordinazio- eta ebaluazio-lanak egitea, ikastetxearen hezkuntza-proiektuan ezarritakoaren eta ezarritako funtzionamendu-arauen arabera; eta, oro har, lehen deskribatutakoen antzeko zeregin guztiak, zerbitzuaren ondorioz esleitzen zaizkionak.

Lanpostuak Nafarroako Administrazio Publikoetako langileentzat ezarritako C mailako ordainsariak ditu, gehi kontratazioa egiten duen Udalaren plantilla organikoan aurreikusitako osagarriak.

Izangaiei betekizunak

Deialdian onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Espainiako edo Europar Batasuneko gainerako estatu kideetako nazionalitatea izatea. Era berean, aurreko lerrokadan ezarritakoa espainiarren ezkontideari eta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritarren ezkontideari ere aplikatuko zaie, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoei eta ezkontidearen ondorengoei ere, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak edo adin horretatik gorakoak badira eta haien kontura bizi badira.
- b) Era berean, Europako Erkidegoak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio-eremuan sartzan diren pertsonen ere aplikatuko zaie, langileen zirkulazio askea aplikatzekoa denean.
- c) Hemezortzi urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.
- d) Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikariaren titulua, Haur Hezkuntzako maisu-lanbidean aritzeko gaitzen duen gradu-titulua, Haur Hezkuntzako espezialitateko maisu-titulua edo titulu baliokidea izatea.



- e) Hizkuntzen Europako erreferentzia-esparru bateratuan ezarritako C1 menderatze-mailako euskararen ezagutza egiaztatzen duen titulazioa izatea.
- f) Dagozkion eginkizunak betetzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.
- g) Funtzio publikoak betetzeko desgaituta edo etenda ez egotea eta Administrazio Publiko baten zerbitzutik bereizita ez egotea.
- h) Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen arabera, lanpostua betetzeko baldintza da sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik eta gizakien salerosketagatik epai irmo bidez kondenatua ez izatea.

Baldintza horiek agiri bidez egiaztatu beharko dituzte hautatuak izan eta aldi baterako kontrataziorako deitzen zaizkien izangaiek, adierazten zaien unean, dagokion kontratua formalizatu aurretik.

Deialdia egin ondoren, agiri horiek aurkezten ez dituztenak, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, ezin izango dira kontratatu, eta beren jarduketa guztiak baliogabetuta geratuko dira, parte hartzeko eskabidean faltsutasuna egoteagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

Eskaerak onartzea

Prozesuan parte hartu nahi duten pertsonak modu telematikoan aurkeztu beharko dute eskabidea Basaburuaoko Udaleko Erregistro Orokorrean, egoitza elektronikoaren bidez, iragarki hau argitaratu eta 15 egun naturaleko epean, l. eranskineko ereduaren arabera. Eredu horrekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo izangaiaren nortasuna egiaztatzen duen agiri ofizial baliokidearen fotokopia.
- Titulazio akademikoa egiaztatzen duen fotokopia.
- Euskararen ezagutzari dagokion titulazioaren fotokopia.
- Sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik eta gizakien salerosketagatik epai irmo bidez kondenatua ez izatearen ziurtagiria.

Epe hori iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izango da. Hori amaitutakoan, Basaburuko Udaleko alkate-udalburuak ebazpena emango du onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzeko.

Behin-behineko zerrendak argitaratu eta hurrengo hiru egun baliodunetan, baztertutako izangaiek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, eta, hala badagokio, izan ditzaketen akatsak zuzendu.

Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta erreklamazioak ebatzi ondoren, alkateak ebazpena emango du, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onartzeko. Baztertutako hautagairik ez badago, zuzenean onartuko da behin betiko zerrenda. Zerrenda horretan hautagaien izen-abizenak jasoko dira, eta baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia ere bai.

Onartutako pertsonen zerrendetan agertzeak ez du esan nahi interesdunei deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Izangaiek kontrataziorako deia egiten zaien unean aurkeztu behar duten dokumentazioa aztertuta, garaiz edo behar bezala eskatutako baldintzaren bat betetzen ez dutela ondorioztatzen bada, interesatuek deialdi honetan parte hartetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko dituzte.



Deialdiaren garapenari buruzko iragarki eta argitalpen guztiak udaletxeko iragarki-taulan eta www.basaburua.eus web orrian argitaratuko dira.

Deialdiaren epaimahaia

Deialdia ebazteko epaimahaia honako hauek osatuko dute:

- Lehendakaria: Santos Etxegia Oronoz, Basaburuko Udaleko alkatea. Ordezkoa
- 1. mahaikidea: Amaia Legarra Beunza, Ttikiena Haur Eskolako zuzendaria. Ordezkoa:
- 2. mahaikidea: Alaia Etayo Oronoz, Basaburuko Udaleko zinegotzia. Ordezkoa

Epaimahaiko idazkaria Lucia Belouqui Iriarte udal idazkaria izango da.

Epaimahaia hautaprobak baino lehen eratu beharko da, eta kideen gehiengo osoa gutxienez bertaratu gabe ezin izango da eratu, ezta jardun ere. Kide anitzeko organoa behar bezala eratzeko eta jarduteko, lehendakaria eta 1. bokala edo, hala badagokio, haien ordezkioak bertaratu beharko dira.

Kalifikazio-epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta deialdia egin duen organoari jakinaraziko diote, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio-arrazoiak gertatzen direnean. Era berean, izangaiek epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte aipatutako inguruabarrak gertatzen direnean.

Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarrien interpretazioari eta aplikazioari buruz sor daitezkeen arazo guztiak.

Epaimahaiak aholkulari espezialistak sartu ahal izango ditu proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari horiek Epaimahaiarekin lankidetzan jardungo dute, eta beren espezialitate teknikoak betetzera mugatuko da.

Hautaketa-prozesua

Hautaketa-prozesua galdera sorta bati idatziz erantzutean datza, euskaraz, lanpostuaren eginkizunei buruzko hainbat erantzun aukerarekin, eta deialdi honen II. eranskinean agertzen den gai-zerrendari buruzkoa izango da.

Probaren gehienezko puntuazioa 50 puntukoa izango da, eta erantzun okerrak epaimahaiak proba hasi aurretik ezartzen duen proportzioan zigortuko dira. Ezarritako gehieneko puntuazioaren gutxienez % 30 lortzen dutenek gaitutuko dute proba. Puntuazio hori lortzen ez dutenek gaitutu gabeko pertsona gisa jarraituko dute zerrendan, eta ezarritako puntuazioa gutxienez lortu dutenek izango dute lehentasuna, puntuazio-ordenaren arabera.

Puntuazioan gertatzen diren berdinketak honela ebatziko dira:

Erantzun oker gutxien dituzten izangaiek aurretik geratuko dira.

Berdinketak jarraitzen badu, epaimahai kalifikatzaileak horretarako egindako zozketa bidez ebatziko da.

Proba deialdi bakarraren bidez egingo da. Izangaiek NANA eraman beharko dute, behar bezala egiaztatu dezaten, eta iragarritako egun, ordu eta lekuetan aurkezten ez direnak kanpoan geratuko dira, edozein arrazoi dela medio.

Proba, aurreikuspenen arabera, 2026ko martxotik aurrera egingo da. Prozeduran onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzen denean adieraziko da proba egiteko eguna, tokia eta ordua.



Hautaprobak egiten diren bitartean, deialdian parte hartzeko eskabidean hala eskatu duten eta ezgaitasun aitortua duten izangaientzat proba horiek egiteko behar diren denbora eta bitartekoen egokitzapenak ezarriko dira.

Probaren kalifikazioa amaitutakoan, epaimahaiak puntuazioak argitaratuko ditu eta hiru egun balioduneko epea irekiko du interesdunek beren eskubideen alde egokitzen jotzen dutena telematikoki alega dezaten.

Epaimahaiak behin-behineko emaitzen aurrean aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren, behin betiko emaitzak argitaratuko dira eta Alkatetzari helaraziko zaizkio, hautaketa-prozesuko espediente osoarekin batera, aldi baterako kontrataziorako izangaiei zerrenda osa dezan. Aldi baterako kontrataziorako deitzen diren pertsonak deialdian parte hartzeko ezarritako baldintzen egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte adierazten zaien unean, dagokion kontratua formalizatu aurretik. Kontratazio-zerrenda horren kudeaketa eta deialdi-sistema aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauak onartzen dituen abenduaren 31ko 814/2010 Foru Aginduan ezarritakora egokituko dira.

Datu pertsonalen babesa

Basaburuko Udala da botere publikoen jardunean enplegu-deialdiak kudeatzeko erabiliko diren datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna.

Datuak adierazitako helburua betetzeko behar den denboran gordeko dira, eta Udalak tratamenduaren ondoriozko erantzukizunak izan ditzakeen bitartean gordeko dira. Era berean, Artiboiei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean ezarritako kontserbazio-arauak bete behar dira.

Datuak epaileei eta auzitegiei laga dakizkieke, indarrean dagoen legeria betez, eta udalaren webgunean eta iragarki-tauletan argitaratuko dira, deialdian adierazten den bezala.

Interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzenak ez badira zuzentzeko, datuak ezabatzeko eskatzeko, tratamenduaren aurka egiteko eta gainerako eskubideak baliatzeko, helbide honetara joz: Basaburuko Udala. Jasokunde kalea 7, Jauntsarats. Telefonoa: 948 503035. osta elektronikoa: udala@basaburua.eus.

Datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta xehatua gure webgunean kontsulta dezakezu, pribatutasun-politikaren atalean.

Helegiteak:

Deialdi honen, deialdiaren oinarrien eta berau aplikatzeko egintzen aurka, honako errekurtsio hauetako bat aurkez daiteke, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsioa, egintza eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa administrazioarekiko auzietako organo eskudunaren aurrean, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- c) Gora jotzeko errekurtsioa Nafarroako Administrazio Auzitegian, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo hilaren barruan. Kalifikazio-epaimahaiaren



egintzen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio deialdia egin duen udal-organoari, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi eta hurrengo hilaren barruan.

Basaburuan 2026ko urtarrilaren 13an. Alkatea, Santos Etxegia Oronoz.

DILIGENTZIA: Plegu hau Basaburuko Udalak 2026ko urtarrilaren 28ko batzarrean onartu zuen, eta hala jasota gera dadin sinatzen dut. Idazkaria.



I. ERANSKINA. Hautaketa-prozesuan onartzeko eskaera

Abizenak eta izena

NAN edo agiri baliokidea

Jaiotze-data

Helbidea (kalea, zenbakia, solairua, posta-kodea, herria)

Telefonoa

Posta elektronikoa

AZALPENA:

Eskatutako baldintza guzti-guztiak garaiz eta behar bezala betetzen dituela, eta euskara dakiten haur-hezitzaile lanpostua aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrenda egiteko deialdian onartua izateko eskatzen duela.

Berariaz ezagutzen eta onartzen dituela deialdiaren oinarri arautzaileak, eta bertan parte hartzeko eskatutako dokumentazio hau aurkezten duela:

- Izangaia nor den egiaztatzen duen Nortasun Agiri Nazionalaren edo agiri ofizial baliokidearen kopia.
- Deialdian parte hartzeko eskubidea ematen duen titulazio akademikoaren kopia.
- Euskararen ezagutzari dagokion titulazioa egiaztatzen duen kopia.

Horregatik guztiagatik,

ESKATZEN

DU

Euskara dakiten haur-hezitzaile lanpostua aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrenda egiteko deialdian onartzea.

(Data eta eskatzailearen sinadura)



II. eranskina. Gai-zerrenda

1. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua.
2. Hezitzailearen funtzioa Haur Hezkuntzan. Gaitasunak, trebetasunak eta jarrerak. Haurren eta hezitzailearen arteko harreman interaktiboak.
3. Behaketan eta esperimentazioan oinarritutako metodologia. Epe laburreko eta luzeko lanaren programazioa. Egindako lanaren dokumentazioa.
4. Bilakaera-une esanguratsuenak 0-3 urteko etapan.
5. Pentsamenduaren konplexutasuna. 0 eta 3 urte bitarteko haurren garapen kognitiboa eta motorra.
6. Psikomotrizitatea eta haren funtzio globalizatzailea garapen kognitiboan, afektiboan eta motorrean. Bernard Aucouturierren psikomotrizitate hezitzailea eta André Lapierreren psikomotrizitate erlazionala.
7. Garapen sozio-afektiboa. Nortasunaren garapena: identitatea, autonomia eta autoestimua. Indibidualizazioa eta sozializazioa.
8. Hizkuntzaren garapena. Adierazpena eta komunikazioa 0-3 urte bitarteko haurrengan. izkuntza eta pentsamendua. Ulermenaren eta adierazpenaren bilakaera.
9. Familiekiko esku-hartzea. Familiak haur-eskolako hezkuntza-zereginetan parte hartzea. Komunikazio- eta lankidetzabideak. Bilerak familiekin: helburuak, plangintza eta balorazioa. Harrera-denbora. Familia-aniztasunaren inklusioa eta arreta.
10. Elikadura osasungarria eta iraunkorra haur-eskolan.
11. Jolasa haurren garapen orokorrean. Jolas librea. Haur-jolasaren bilakaera. Joko heuristikoa eta altxorren saskia. Hezitzailearen zeregina jolasean. Jolasguneak eta eskolako patioa. Giroak eta proposamenak sortzea.
12. Eguneroko erritmoak eta errutinak. Denbora antolatze eta banatzeko ereduak: jardura indibidualak eta kolektiboak. Espazioen antolaketa. Jolas- eta atseden-txokoak.
13. Emmi Pikler eta mugimendu askea. Reggio Emilia eta Loris Malaguzziren pedagogia.
14. 28/2007 Foru Dekretua, martxoaren 26koa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena eta ziklo hori ematen duten ikastetxeek bete behar dituzten baldintzak eta ziklo horretako hezkuntza-edukiak ezartzen dituenak.
15. Ekainaren 1eko 61/2022 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako etapako irakaskuntzen curriculumak ezartzen duena.